

Ordiziako Udala

2025ITGB0006

Ordizian, **2025eko apirilak 3an**, Udaletxe honetako batzar-aretoan bildu da **TOKIKO GOBERNU-BATZARRA**, **Ohiko** bilkuran, honakoak bertaratu direlarik:

*En Ordizia, siendo el día **3 de abril de 2025**- se reúne en el Salón de Plenos la **JUNTA DE GOBIERNO LOCAL** en Sesión ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:*

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA

Adur Ezenarro Agirre

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK

Ainhoa Jimenez Goñi (EH BILDU ORDIZIA)
Joseba Aranburu Ganzarain (EAJ-PNV)
Julen Iraola Matxain (ORDIZIA ORAIN-ELKARREKIN PODEMOS)
Ana M^a Sánchez Herráez (GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA)

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

Maitane Alvarez Garziandia (EH BILDU ORDIZIA)

IDAZKARIA

Naia Ruiz de Eguino García-Echave

BESTELAKO BERTARATZEAK ETA FALTA DIRENAK

Gregorio Iruretagoyena

AZTERTUTAKO GAIAK


ASUNTOS TRATADOS

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA:

- 1.- 2025eko martxoak 27ko ohiko bilkurako akta zirriborroa onartzea.
- 2.- 2024 urteko likidazioaren kontu ematea (2025KALI0001)
- 3.- Saitetako 2025eko martxoko kudeaketa txostenak.
- 4.- Martxoan zehar kontratu esleituen berri ematea
- 5.- Kontratu txikien berri ematea. (2025SCTX 14,15,16 eta 17 (2025/0505, 0543, 0613, 0666 dekretuak).

- 1.-Aprobación del borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 27 de marzo de 2025.
- 2.- Dación de cuenta de la liquidación del ejercicio 2024 (2025KALI0001)
- 3.- Informes de gestión los diferentes departamentos correspondientes al mes de marzo de 2025.
- 4.- Dación de cuenta de contratos adjudicados en el mes de marzo.
- 5.- Dación de cuenta de contratos menores (2025SCTX 14, 15, 16 y 17 (Decretos 2025/0505, 0543, 0513, 0666)



Ordiziako Udala

2025ITGB0006

6.- Martxoko ordainketen berri ematea.

6.- *Dación de cuenta de los pagos de marzo.*

7.- Delegaritzako akten berri ematea

7.-*Dación de cuenta de las actas de delegaciones.*

8.- Bizikidetzarako ordenantzaren eta Udal Hezkuntza Kontseiluaren erregelamenduaren inguruko iradokizunak eta ekarpenak jasotzea.

8.- *Recogida de sugerencias y aportaciones sobre la ordenanza de Convivencia y el reglamento del Consejo Asesor Municipal Educativo.*

9.-Galde-eskeak.

9.- *Ruegos y preguntas*

GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAIAK:


- Elikagaien Bakuaren kudeaketa.
- Diruzaintzatik aurkeztutako txostenari zalantzak argitzea.
- Oiangualdeko planari buruzko eztabaida-argibideak.
- Videoactari buruzko galderak.

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 15:10etan

AMAIERA ORDUA: 16:20etan





Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2025eko martxoak 27ko bilkurako akta zirriborroa onartzea.

Proposamena

2025eko martxoak 27ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.

1.- Aprobación del borrador del acta de la sesión de fecha 27 de marzo de 2025

Propuesta

Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 27 de marzo de 2025.

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

Ana Sánchezek honako hau adierazi du: aktan elkarbizitzarako ordenantzari buruzko gogoeta egin nuen, agian itzulpen-arazo bat da, baina gazteleraz nire hitzaldiak, jasota dagoen bezala, ez du zentzu handirik. Honako hau adierazi nuen: hausnarketa egitea beharrezkoa da pankarta eta grafitietan egon zitekeen adierazpen askatasunarekin herritarrek zer mezu eman nahi duten aztertu behar delarik Mezuekin erasotutak sentitzen diren pertsonen birbiktimizazioa ez eragitea kontuan hartzea eskatzen da. Eta eskaera hori Baketik-i helaraztea, laguntzeko, izan ere, enpresa bera baita elkarlaneko bilerak eramaten dizkiguna, erredakzio egokia egin ahal izateko.


Ana Sánchez comenta lo siguiente: en el acta había hecho una reflexión sobre la ordenanza de convivencia, igual es un problema de traducción, pero en castellano mi intervención como está redactado no tiene mucho sentido. Lo que comenté fue lo siguiente: la reflexión de la necesidad de analizar los mensajes que los ciudadanos/as quieren publicar, es decir conjugar la libertad de expresión que pudiera haber en las pancartas y grafitis, pero analizando qué se quiere expresar. Que se tuviera en cuenta que los mensajes no produjeran una revictimización de las personas que se sintieran agredidas. Y que trasladáramos la petición a Baketik de que nos ayudara, ya que también es la misma empresa que nos lleva las reuniones de Bizikidetza, para poder realizar una redacción acorde.

Idazkariak esan du idazketa zehatza egiten saiatu dela, eta idatzita dagoen bezala grabatuta dagoela. Baina berriro esaten dut, eta ez daukat arazorik horrela idazteko eta zuzentzeko.

La secretaria comenta que se ha intentado hacer una redacción exacta, está grabado como está redactado. Pero me lo remites y no tengo problema en redactarlo de esta manera.

Alkateak adierazten du: gaur grabatzen gaude, eta bideoakta sistema jartzen gabiltza, eta ez dut uste horrenbeste denbora pasa dezakegunik interbentzioak zuzentzen eta osatzen. Tokiko Gobernu

El alcalde señala: Hoy estamos grabando, y estamos poniendo el sistema de video acta, y no creo que podamos pasar tanto tiempo corrigiendo y completando las actas. Es una Junta de Gobierno Local, una comisión



Ordiziako Udala

2025ITGB0006

Batzordea da, lanketarako batzorde bat, eta ezin dugu denbora galtzen egon akten zuzenketak egiten. Orain grabazioa izango dugu, eta literalki pertsona batek jaso ez dezakena, ezin baita literalki jaso, grabatuta geratuko da. Zuzenketa bidali eta txertatuko da, eta txertaketa hori egingo dela aintzat hartuta bozkatzeko dugu akta.

de trabajo interno y no podemos estar perdiendo el tiempo haciendo correcciones de actas. Ahora tendremos la grabación, y lo que literalmente no puede transcribir una persona, porque no se puede recoger literalmente, quedará grabado. Se enviará e insertará la corrección y se vota el acta teniendo en cuenta que se va a realizar dicha corrección.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

Aldekoak: 3 (EH BILDU ORDIZIA 2, GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

2.- 2024 urteko likidazioaren kontu ematea (2025KALI0001)

2.- Dación de cuenta de la liquidación del ejercicio 2024 (2025KALI0001)

2025/0575. DEKRETUA

HONAKO HAU IKUSITA:


Udal honen 2024(e)ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat datorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau:

HONAKO HAU ERABAKI DUT:

Lehena.- Udal honen 2024(e)ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINZA GERA KINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2024-12-31n:		8.356.176,56
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2024-12-31n:		2.726.468,60
Aurrekontuko zordunak :	2.603.265,07	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	23.697,39	



Ordiziako Udala

2025ITGB0006

- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2024-12-31n:		2.097.729,08
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	1.390.326,94	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	716.205,28	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2-3):		8.885.409,94
5.- Saldo kobragaitzak:		1.012.238,33
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		3.302.705,61
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		4.570.466,00

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	488.244,07
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-25.940,97
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	1.139.887,51
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	481.736,79
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	2.083.927,40

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	5.910.725,88
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	1.468.739,74
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	7.379.465,62

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.


Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

Alkateak adierazten du likidazioaren informazioa igorri dela, eta badakizuela likidazioa kontuhartzaitzaz osatu eta ondoren alkate dekretu bidez onartzen dela. Gero osatuko da kontu orokorra, eta hau bai pasako da finantza batzorde berezitik, eta argitaratu egingo da eta udalbatzan onartuko da. Kontuan izan orain falta dela benetan soberakinaren

***El alcalde** manifiesta que se ha remitido la información de la liquidación, y que conocen que la liquidación se completa en Intervención y se aprueba por Decreto de Alcaldía. Posteriormente se completará la cuenta general, que sí pasará por la comisión financiera especial, que será publicada y aprobada en pleno municipal. Téngase en cuenta que ahora falta por*




Ordiziako Udala

2025ITGB0006

kopurua jasotzeko, berez diruzaintza gerakina 4.570.466,00 azaltzen dela, baina hau ez da bere horretan, zeren falta zaigu txertaketa egitea (aurreko ekitaldian onartu ziren inbertsio eta eskaera batzuk, eta aurten burutzen gabiltza baina oraindik ez dira ordaindu, baina kreditu hori konprometuturik dugu). Beraz prestatzen gabiltza 2025an 2024tik eratorri edo txertatu beharrekoak, eta hor jakingo dugu baina aurreikusten da soberakina bi milioi inguruan geratuko dela. Bestalde, Kontuhartzaileari igorri zitzaion Gregoriok egindako proposamena, auditoriaren eskaera, nahiz eta guk eskatu dezakegun badakizue bere eskumena dela, beraz horretan daude. Guk aurreratze aldera, Beteani eskatu diogu aurrekontua, likidazioa jada igorri diegu, eta pasako digute. Ondoren, Majorikoa ez digute pasa, ez baitzaie egokia iruditzen 2022 eta 2023ko kontuak sinatu gabe izanda hori pasatzea, eta hori da auditoria ofiziala ez igortzearen arrazoa. Betean eta Biok lankidetzan izan dira zuzenketak bideratzeko. Zuzenketak Beteanek pasa dizkigu, eta horiek sinatuko ditugu. Majoriko Kontseilu bat deituko dugu kontu horiek sinatzeko, eta 2024ko auditoritzaren aurrekontua igorriko dizuegu zuek azter dezazuen. Berez badakizue kontuhartzailertan egindako dokumentua dela, eta guk horren inguruan zehaztasun gutxi adierazi dezakegu, Sarekotik ateratzen da ekitaldia nola amaitu den, baina zalantzarik baduzue galdetu edo guri eskatu informazioa. Likidazioaren emaitza hau da, martxoak 31 baino lehen egin behar da legea, beraz araudiak esandako epe barruan gaude. Aurreratzen dizuet lanean direla, eta apirilak 11n izango da informazio batzordea, baina urgentziaz gai batzuk eramango ditugula apirileko udalbatzara elkarte ugari daudelako dirulaguntzak jaso gabe (luzatutako aurrekontuek arazoak eman dituztenez, Alkate Dekretuak egin behar izan dira dirulaguntza izendunetan, eta inbertsio

recibir realmente el importe del remanente, en realidad el remanente de tesorería aparece 4.570.466,00, pero esto no es lo mismo, porque nos falta hacer la inserción (algunas de las inversiones y pedidos que se aprobaron en el ejercicio anterior y que estamos ejecutando este año, pero todavía no se han pagado, pero tenemos ese crédito comprometido). Por lo tanto, estamos preparando lo que habrá que incorporar o derivar de 2024 en 2025, y ahí lo sabremos, pero se prevé que el excedente se quede en unos dos millones. Por otra parte, se remitió al Interventor la propuesta de Gregorio, la solicitud de auditoría, aunque nosotros ya sabemos que es su competencia, por lo que están en ello. Para adelantarlos nosotros hemos pedido a Betean el presupuesto, ya les hemos remitido la liquidación, y nos lo pasarán. Después no nos han pasado el de Majori porque no les parece oportuno pasarlo teniendo las cuentas de 2022 y 2023 sin firmar, y esa es la razón por la que no han remitido la auditoría oficial. Betean y Biok han colaborado para encauzar las enmiendas. Las enmiendas nos las ha pasado Betean y las firmaremos. Convocaremos un Consejo de Majori para la firma de estas cuentas y os enviaremos el presupuesto de la auditoría de 2024 para que lo analicéis. Ya sabéis que se trata de un documento realizado en Intervención, y nosotros podemos indicar poca precisión al respecto, de la Red sale cómo ha terminado el acto, pero si tenéis alguna duda preguntad o pedidnos información. El resultado de la liquidación es que debe realizarse legalmente antes del 31 de marzo, por lo que nos encontramos en el plazo señalado por la normativa. Les adelanto que están trabajando y que el 11 de abril tendrá lugar la comisión informativa, pero que de urgencia llevaremos algunos temas a la corporación de abril porque hay muchas asociaciones sin recibir subvenciones (debido a los problemas que han dado los presupuestos prorrogados, ha habido que hacer Decretos



Ordiziako Udala

2025ITGB0006

eta kontratu batzuetarako).

del alcalde en las subvenciones nominativas y para algunas inversiones y contratos).

Jakinaren ganean geratu da Batzarra



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

3.- Saitetako 2025eko martxoko kudeaketa txostenak

3.- Informes de gestión los diferentes departamentos correspondientes al mes de marzo de 2025.

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Julen Iraolak idatziz zalantzak igorriko dituztela adierazi du.

Julen Iraola comenta que las preguntas las remitirán por escrito.

Alkateak adierazi du oraingoan zatika igorri den arren, antolaketan kudeaketa txosten eredu bat jada adostu dela, eta horrela igorriko dela hurrengoetan.

El alcalde indica que, aunque en esta ocasión se ha remitido por partes, en organización ya se ha acordado un modelo de informe de gestión, y así se remitirá en las siguientes.

Julen Iraolak adierazten du txosten horiek estandarizatzea zoriontzekoa dela.

Julen Iraola señala que estandarizar estos informes es motivo para felicitar.

Jakinaren ganean geratu da Batzarra.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:


4.- Martxoan zehar kontratu esleitu berri ematea.

4.- Dación de cuenta de contratos adjudicados en el mes de marzo.

Jakinaren ganean geratu da Batzarra.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



5.-Kontratu txikien berri ematea.

(2025SCTX 14,15,16 eta 17
(2025/0505, 0543, 0613, 0666
dekretuak).

Julen Iraolak zalantza hau adierazten du: 2025/0015 dokumentuan agertzen da Ciberlan Arkitekturari esleitzen zaio, Sanperio kaleko eskailera, ze proiektu da hau?

Alkateak adierazten du Sanperio kaleko egin den azkeneko etxea, eta goiko terrazaren artean dagoen eskaileraren ingurukoa da. Eskaileraren lehen tarte berrizteko ondoko etxekoei eskatu genien, eta falta zen azkeneko zatian edo 2.en tramo nahiko zikin zegoen. Hor gertatzen da mailarteak betetzeko 15 x30 izan behar da eta hori egiteko boladizo bat egitea eskatzen da. Beraz, boladizoa egiteko proiektua, ondoko etxebizitzaren birgaitzea egiten ari den enpresari eskatu zaio, hormigoizko estruktura hori tekniko batek sinaturik doala bermatzeko asmoarekin. Gero ez dakigu gure langileekin egingo den obra, konplexutasunaren arabera izango da, edo kanpo enpresa batekin egingo den.

Jakinaren gainean geratu da Batzarra.

5.- Dación de cuenta de contratos menores.

(2025SCTX 14, 15, 16 y 17 (Decretos 2025/0505, 0543, 0513, 0666)

Julen Iraola plantea la siguiente duda: Aparece en el documento 2025/0015 que se adjudica a Ciberlan Arquitectura, la escalera de Sanperio kalea, ¿qué proyecto es éste?

El alcalde indica que es con relación a la escalera que se ha construido entre la última casa que se ha construido en Sanperio kalea y la terraza superior. Solicitamos que el primer tramo lo renovar los vecinos y en el último tramo que faltaba o el tramo 2 estaba bastante sucio. Ahí ocurre que para rellenar los Inter escalones hay que tener 15 x30 y para hacerlo se pide hacer un voladizo. Por lo tanto, el proyecto de construcción del voladizo ha sido encargado a la empresa que lleva a cabo la rehabilitación de la vivienda colindante, con el fin de garantizar que dicha estructura de hormigón vaya firmada por un técnico. Luego no sabemos si la obra se hará con nuestros trabajadores, será en función de la complejidad, o si se hará con una empresa externa.


Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

6.- Martxoko hilabeteko ordainketen berri ematea.

Alkateak adierazten du hilabetero saiatuko gara modu sistematizatuan informazioa igortzen, hilabeterako ordainketen artxiboa izango duzue eta baita kontratu txikiak hilabetekoak igorriko

6.- Dación de cuenta de los pagos del mes de marzo.

El alcalde indica que cada mes intentaremos transmitir la información de forma sistematizada, tendréis un archivo de pagos mensuales y también se enviarán contratos menores mensuales. Y en los contratos mayores también se os informará



Ordiziako Udala

2025ITGB0006

dira. Eta kontratu handietan ere, hilabetero, bi momentuen inguruko informazioaren berri emango zaizue: lizitazioaren momentua (eta hor link bat izango duzue plataformara igortzen zaituztena, non informazio osoa izango duzuen) eta beste momentua kontratu bakoitza esleitzean.

mensualmente de dos momentos: el momento de la licitación (y ahí tendréis un link que os envía a la plataforma, donde tendréis toda la información) y el otro momento al adjudicar cada contrato.

Julen Iraolak aportazio bat egiten dute: liburutegiko liburuen erosketa ikusi dugu Larratxon egiten dela, eta gogora arazten dugu Buztuntzan ere badela beste liburutegi bat, Manso, eta txandakatzen joatea eskatzen da aberastasunaren banaketa egite aldera.

Julen Iraola hace una aportación: Hemos visto que la compra de libros de la biblioteca se hace en Larratxo y recordamos que en Buztuntza también hay otra tienda de libros, Manso, y se pide ir rotando para hacer el reparto de la compra.

Jakinaren gainean geratu da Batzarra.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

7.- Delegaritzako akten berri ematea.

7.- Dación de cuenta de las actas de delegaciones.

Ez da izan

No se han dado

Jakinaren gainean geratu da Batzarra.




Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

8.- Bizikidetzarako ordenantzaren eta Udal Hezkuntza Kontseiluaren erregelamenduaren inguruko iradokizunak eta ekarpenak jasotzea.

8.- Recogida de sugerencias y aportaciones sobre la ordenanza de Convivencia y el reglamento del Consejo Asesor Municipal Educativo.

Alkateak adierazten du aurreko Tokiko Gobernuan eskatu zela lanketa egitea, eta zerrenda igortzea zer landu edo barneratu beharko lukeen ordenantzak. Lanketa egin duzuen, eta ez dakit gaur jasoko dugun, baina horrela ez bada data bat jartzea eskatuko nuke informazioa biltzeko. Guk aurrekoan identifikaturik

El alcalde señala que en la anterior Junta de Gobierno Local se solicitó la elaboración de esta, remitiendo el listado de lo que la Ordenanza debería elaborar o incluir. No sé si habéis elaborado el listado, y no sé si la recibiremos hoy, pero si no es así pediría que se pusiera una fecha para recabar información. Nosotros ya expusimos los bloques que teníamos identificados el otro



Ordiziako Udala

2025ITGB0006

genituen blokeak agertu genituen.

día.

Joseba Aranburuk adierazten du bizikidetzari bidez 16 puntu ekarri ditugu, eta pasako dizkizuegu. Beasain, Donostiako eta Irungo ordenantzak landu ditugu. Hauek bakarrik ez dira izango, edo ez du esan nahi hauek izan behar dutenik, baina oraingoz hauek igorriko ditugu.

Joseba Aranburu señala que en convivencia hemos traído 16 puntos, que os los pasaremos. Hemos trabajado las ordenanzas de Beasain, Donostia e Irún. Posiblemente no sean únicamente estos, o no quiere decir que tengan que ser éstos, pero de momento los enviaremos.

Idazkariak adierazten du, Julen Iraolak gaur eguardian sartu duela bere proposamena email bidez.

La secretaria manifiesta que Julen Iraola ha incorporado hoy al mediodía su propuesta vía email.

Ainhoa Jimenezek komentatzen du, orain jaso, bildu dena, eta hurrengo batzorde edo bilera batean jorratzea izan daitekeela egokiena.

Ainhoa Jiménez comenta que, ahora que se ha recogido, debemos compilar todo, y que lo ideal puede ser tratarlo en una próxima comisión o reunión.

Joseba Aranburuk argitze aldera adierazten du Julenek zuzenketak igorri dituela, baina beraiek oraindik ez dituztela zuzenketak egin, soilik igorri dute zer lantzea nahiko luketen.


Joseba Aranburu aclara que Julen ha enviado las correcciones, pero que ellos todavía no las han hecho, sólo han enviado lo que les gustaría trabajar.

Ana Sánchezek esan du gauza batzuk aipatu zituela, elkarbizitzaren ondoren, eta ekarpenak egiteko pasatu zenizkiguten gauza batzuk begiratu ditut, baina, agian, idatziz ematea dela egokiena. Hainbat ordenantza aztertu ondoren, eta publizitatearen gaia, adibidez, ez dela betetzen ari ikusita, agian une egokia da bizikidetzaren ordenantzan sartzeko eta gai guztiei heltzeko. Kezkatzen nauenak pankarten eta grafitien gaiarekin du zerikusia batez ere, batez ere baimenak arautzen diren moduarekin, zehapenen gaiarekin edo zehapenen araubideak kezkatzen nau, horri buruzko erregimen oso bat egon beharko bailuke.

Ana Sánchez comenta que tenía unas cosas apuntadas, después de convivencia, y he mirado algunas que nos pasasteis para aportar, pero si quieres las paso por escrito. Después de analizar diversas ordenanzas, y visto que por ejemplo el tema de la publicidad no se está cumpliendo, igual es buen momento para incorporarlo en la ordenanza de convivencia y abordar todos los temas. Lo que me preocupa tiene que ver sobre todo con el tema de pancartas, grafitis, sobre todo me preocupa cómo se regula las autorizaciones, el tema de sanciones o el régimen de sanciones, porque debería de existir un régimen completo al respecto.

Idazkariak hitza eskatu eta azaldu du: nahiz puntu bezala ez den sartu, katuen kudeaketa egiteko dirulaguntza bat dago.

La secretaria pide la palabra y explica que, aunque como punto no se ha incluido, hay una subvención para sufragar los gastos de la gestión de gatos. La realidad es que se



Ordiziako Udala


2025ITGB0006

Gauza da, dirulaguntza lortzeko kode etiko bat sortzea eskatzen zaigula, eta larri gabilitza denboraz. Beraz, agian kodea egingo da modu azkar batean, dirulaguntza ez galtzeko, eta ondoren egoki eta txukun landuko da kode etikoa.

nos solicita crear un código ético para conseguir la subvención y estamos apurados de tiempo. Por lo tanto, tal vez se haga el código de forma rápida para no perder la subvención y luego se trabajará adecuadamente y se ordenará debidamente el código ético.

Alkateak hitza hartzen du eta adierazten du dirulaguntzen arira, urtero hezkuntza eraikinak berrizteko deialdia egiten zen, eta deialdi hori desagertu da. Aldiz, aste honetan jaso dugu hori ordezkatu duen hitzarmen markoaren eredua eta gutun bat. Ez dira gauzak gehiegi argitzen, eta, ondorioz, eskatu dut argiketa bat. Ez dakigu oso ondo, hitzarmen marko bezala udalbatzatik pasa behar den edo ez, baina argituko dugu. Berez, planteatzen da %60 eta %40ko finantzazioarekin jarraitzea, baina kasu honetan ez digute adierazi 600.000 euroko inbertsioaren muga jarraitzen duen. Bestalde, eskatu digute 16a baino lehen aurtengo proiektua igortzea. Guk proiektua egina dugu, eta lizitaturik dago. Horretaz gain, eskatuta dago, eta orain etorriko da, panel fotovoltaikoen proiektua, eta biomasa galdaran proiektua. Hor aztertzen ari gara zer irteten zaigun hobeto: hitzarmen hau, edo EVEko laguntza. Beraz informatuko zaituztegu. Horregatik lehenik jakin nahi dugu ea 600.000ko muga hori dagoen, eta, bestetik, Next dirulaguntzetarako dugun proiektua igorri nahi diegu, ikus dezaten hasi garela, baina ez dela aktuazio bakar bat, baizik eta eraberritze integral baten zati bat dela. Baita aurreratzen dizuet, eraberritze horretan azkeneko zatia eraikina eraberritzen zen energetikoki, estalkia egiten zen, irisgarritasunean plataforma berri bat egiten zen, eta gero zegoen patioaren birnaturalizazioa. Guraso elkarteak aktibatu dira, eta komisio bat sortu dute, eraikinaren eraberritze eta mantenu lanen inguruan. Beraz, beraiekin maiztasunez

El alcalde toma la palabra para manifestar que, al hilo de las subvenciones, anualmente se convocaba la renovación de edificios educativos, convocatoria que ha desaparecido. En cambio, esta semana hemos recibido el modelo de convenio marco que lo ha sustituido y una carta. No se aclaran demasiado las cosas y, en consecuencia, he pedido una aclaración. No sabemos muy bien si como convenio marco hay que pasar por el pleno o no, pero lo aclararemos. En realidad, se plantea continuar con la financiación del 60% y 40%, pero en este caso no se nos ha indicado si sigue el límite de 600.000 euros de inversión. Por otra parte, se nos ha solicitado que antes del 16 remitamos el proyecto de este año. Nosotros tenemos el proyecto hecho, y está licitado. Además de eso, está solicitado, y ahora vendrá, el proyecto de paneles fotovoltaicos, y el proyecto en la caldera de biomasa. Ahí estamos estudiando qué nos sale mejor: si perfeccionar este convenio, o solicitar la ayuda del EVE. Así que os informaremos. Por eso primero queremos saber si existe esa limitación de 600.000 y, por otro lado, queremos enviarles nuestro proyecto que presentamos en las subvenciones Next para que vean que hemos empezado, pero que no es una actuación única o aislada, sino que es parte de una reforma integral. También os adelanto, en esta reforma en el último tramo se reformaba energéticamente el edificio, se hacía la cubierta, se hacía una nueva plataforma en accesibilidad y luego se renaturalizaba el patio. Se han activado las asociaciones de padres/madres, que han creado una comisión en torno a las obras de reforma y mantenimiento del edificio. Así que nos



Ordiziako Udala

2025ITGB0006

biltzen ari gara, eta planteatu diegu patioaren berregituratzea prozesu partehartzaile baten bidez adostea. Eta beraiek Oinerriekin lanketa egiten dabilta, eta partehartze prozesua egiteko proposamena egin digute, eta guk partehartze hori finantzatzeko dugu, horrela lanketaren ardura guraso elkarteak hartuko luke. Formakuntza ere planteatu dute guraso eta irakasleentzako, eta behatokia egingo dute umeei patioaren erabilera nola egiten duten ikusteko. Eta, txertatu nahi dute, hurrengo ikasturterako, ikasleekin egin nahi den lanketa zikloa.

estamos reuniendo con ellos con frecuencia y les hemos planteado acordar la reestructuración del patio a través de un proceso participativo. Y ellos están trabajando con Oinerri, y nos han propuesto hacer un proceso participativo, que financiaremos nosotros. De esta forma la asociación de padres y madres se haría cargo de la elaboración. También se ha planteado la formación para padres y madres y profesorado, y se hará un observatorio para ver cómo hacen uso del patio los niños. Y quieren incorporar, para el próximo curso, el trabajo por ciclos que se quiere hacer con el alumnado.

Julen Iraolak adierazten du zorionak, zeren noizbait hitz egin dugu Tokiko Gobernu Batzordean interesgarria izango zela patio erabiltzailea izango direnak diseinatu ahal izatea patio hori. Beraz ideia bikaina.

Julen Iraola felicita la iniciativa, porque en alguna ocasión hemos hablado en la Junta de Gobierno que sería interesante poder diseñar ese patio los que van a ser los usuarios del patio. Así que una gran idea.

Idazkariak hitza eskatu eta adierazten du: Majoriko gerentearen hautaketa prozesuarekin jarraitzen gabilta, eta horren berri ematen du

La secretaria pide la palabra e indica lo siguiente: estamos siguiendo el proceso de selección del Gerente de Majori, y da cuenta de ello.

Jakinaren gainean geratu da Batzarra.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

9.- Galde-erreguak


9.- Ruegos y preguntas.

Joseba Aranburuk adierazten du Lazkaon elikadura bankua Caritasek kudeatzen dutela erantzun diote.

Joseba Aranburu señala que en Lazkao el banco de alimentación está gestionado por Cáritas.

Julen Iraolak esaten du beste herri batzuetan Caritas mantendu dela, legeak ez baitu adierazten itxi egin behar denik. Baizik eta adinez azpiko kasuetan mantendu daitekeela, edo horrelako zerbait.

Julen Iraola dice que en otras localidades se ha mantenido Cáritas porque la ley no indica que haya que cerrar. Sino que pueden mantenerse en casos de menores de edad, o algo así.



Ordiziako Udala

2025ITGB0006

Ainhoa Jimenezek adierazten du, hitz egingo dela gaiaz, baina ematen ari zen erantzuna ez zela erantzun duinena, nahiz eta historikoki horrela egin den. Sortu zenean eragile ezberdinekin egitea erabaki zen, eta Caritasek bere indibidualtasuna mantendu nahi zuenez beraien kabuz egin nahi zuen (gizarte zerbitzuarekin lotura hautsiz). Eta guk jarraitu genuen beste elkarteekin egiten, baina aztertu ondoren ez dela sistema duinena, eta gainera banatzen ditugun elikadurak agian ez direla familia horiek behar dituztenak, edo nahi dituztenak, dena balantza batean jarri beharko da, eta sistema egokiena zein den ikusi.

Julen Iraolak adierazten du duintasun eza ematen zela, baina bere garaian txartel monedero horrekin merkatuko preziora lotuta zaude, eta supermerkatu handietan soilik erabil dezakezu. Ea aukera dagoen zirrikitu legal bat aurkituz, beste modu batera egiteko, hau da, denda txikietan edo azokan erabiltzeko aukera aurkitzea.

Ainhoa Jimenezek adierazten du dena aztertu beharko dugula, dagoen momentuan erabakiak hartuz. Baina erabakia ez da komertzioa sustatzeko, baizik eta pertsona batzuen beharrei momentuan erantzuteko hartu behar den erabakia da. Beraz, pausoz pauso egin behar da, baina lehentasuna pertsona horien beharrak estaltzea izan behar da, eta, ondoren posible bada merkataritza sustatzearekin uztartzea, ederki.

Ainhoa Jiménez señala que se va a hablar del tema, pero que la respuesta que se estaba dando no era la más digna, aunque históricamente se ha hecho así. Cuando se creó se decidió hacerlo con diferentes agentes, y como Cáritas quería mantener su individualidad querían hacerlo por ellos mismos (rompiendo el vínculo con el servicio social). Y nosotros seguimos haciéndolo con otras asociaciones, pero después de analizar que no es el sistema más digno y que además los alimentos que repartimos igual no son los que necesitan esas familias, o los que quieren, habrá que ponerlo todo en una balanza y ver cuál es el sistema más adecuado.


Julen Iraola señala que era indigno, pero con esa tarjeta monedero estás vinculado al precio de mercado y sólo puedes usarlo en grandes supermercados. Ojalá encontremos una ranura legal para hacerlo de otra manera, en pequeños comercios o en la feria

Ainhoa Jiménez señala que tendremos que analizarlo todo, tomando decisiones en el momento que estemos. Pero la decisión no es para fomentar el comercio, sino que es una decisión que hay que tomar para atender las necesidades de algunas personas en el momento. Por tanto, hay que hacerlo paso a paso, pero la prioridad debe ser cubrir las necesidades de estas personas y, si después es posible compaginarlas con la promoción del comercio, perfecto.

.....

Gregorio Iruretagoienak adierazten du atzo jasotako dokumentuan, diruzaintzako kudeaketa txostenean, azaltzen diren kantitateak nondik ateratzen dira? Adibidez Sasieta eta Majoriko kontuak nondik ateratzen dira, ez baitira Sarekon agertzen?.

Gregorio Iruretagoiena señala que, en el documento recibido ayer, en cuanto al informe de gestión de tesorería, ¿de dónde salen las cantidades que se explican? Por ejemplo, ¿de dónde salen las cuentas de Sasieta y Majori, que no aparecen en Sareko?.



Alkateak adierazten du Sarekoko kontabilitatea gauza bat dela, eta hau diruzaintzatik egindako ordainketak direla. Ez dakit dena kontabilizatu diren, diruzainak egindako txostena da, baina badaki Majorin adibidez ekarpena ordaintzeko eskatu zuten, egin da, eta ez daki hori sartu den edo ez. Diruzainari galdetuko zaio.

El alcalde señala que la contabilidad de Sareko es una cosa, y que esto son pagos desde la Tesorería. No sé si se ha contabilizado todo, es un informe del tesorero, pero sabe que en Majori por ejemplo pidieron el pago de la aportación, se ha hecho, y no sabe si se ha incluido eso o no. Se le preguntará al tesorero.

Joseba Aranburuk adierazten du adibidez Sasietako ordainketak ez duela bat egiten.

Joseba Aranburu señala por ejemplo que el pago de Sasieta no coincide.


.....

Julen Iraolak adierazten du Oinagualdeko plana 2018an onartu aurretik, udalak ez zuen eskatu hirigintza aholkularitza batzordearen iritzia eskatu., eta orain aldaketa egitean ere ez da batzorde horren iritzia eskatu, ez da beharrezkoa iritzi hori izatea?

Julen Iraola señala que antes de la aprobación del plan de Oiangualde en 2018, el ayuntamiento no solicitó la opinión de la comisión asesora de urbanismo, y ahora al hacer la modificación tampoco se ha pedido la opinión de esa comisión, ¿no es necesario tener esa opinión?

Alkateak adierazten du berez ez dela beharrezkoa. Orain deituko dugu osatzeko, baina zehazki plangintza orokorra dago irizpen horretara lotua, eta gero bai ezartzen du aukera dela bestelako plangintzetan eskatzea, baina ez da derrigorrezkoa edo modu aginduzkoan. Baina udalbatzan komentatu genuen gure asmoa zela, sortzea, eta azaltzea bi plan horietan egin behar diren aldaketak zeintzuk diren. Baina aintzat izanda bakoitzak bere iritzia agertzeko eta komunikatzeko askatasuna duela, bai eskatuko genuke zuek argitara emandako informazioa ez dela egokia. Zuek argitaratu duzuen da, aldaketa hau egin ezean, eraikitzaileak egin dezakeena. Aldaketa honekin proposatzen dena da askoz etxe txikiago, gehiago, aldiz aldaketa ez bada onartzen bai egingo dira tamaina handiko etxe horiek. Gainera Lurzoru Legeak argi uzten du eraikitzaileak ez dituela bere

El alcalde manifiesta que por sí mismo no es necesario. Ahora llamaremos para completarlo, pero en concreto está ligado a ese dictamen el planeamiento general, que luego sí establece la posibilidad de solicitarlo en otro tipo de planeamientos, pero no es obligatorio o de forma preceptiva. Pero en el pleno comentamos que era nuestra intención, crear el consejo, y explicar cuáles son los cambios que hay que hacer en estos dos planes. Aun y todo comentar, teniendo en cuenta que cada uno es libre de expresar y comunicar su opinión, sí solicitaríamos que la información publicada sea la real. Lo que habéis publicado es lo que, de no hacerse este cambio, puede hacer el constructor. Lo que se propone con este cambio es una casa mucho más pequeña, es más, si no se acepta el cambio sí se harán esas casas de gran tamaño. Además, la Ley del Suelo deja claro que el constructor no consigue sus derechos con la mera aprobación del plan, sino que le impone una serie de



Ordiziako Udala

2025ITGB0006

eskubideak plana onartze hutsarekin lortzen, baizik eta betebeharrak batzuk jartzen dizkio, eta eskubide horiek pixkanaka lortzen ditu urratsak bete ala. Eta kasu honetan betebeharrak eta urratsak bete ditu, eta, tamalez, ez gaude erabakitzen hori egin daitekeen edo ez. Zeren, hori jada erabakita zegoen, eta eskubidea jada sortu da. Atzera botatzeko modu bakarra plangintza orokorraren aldaketarekin etor liteke, baina Ordiziako Udala plangintza horren onuraduna izan da, bere garaian, eta ez du inolako zentzurik onuradun bakar horrek orain ezezkoa agertzea. Baina, egun, horrela gaude bere garaian hartu zelako erabaki bat, eta etxebizitza hauek daudelako lotuta Lortek, Goieki eta Goierriko herri ekintza fundazioaren eremu industrial guztia. Izango balitz beste egoera bat, garatu gabea, eta dena berde dagoela beste egoera batean egongo ginateke. Beraz informazioa da 295 m² ko etxebizitzak ez dira aldaketak proposatzen direnak, baizik eta aldaketa ez bada egiten egingo diren luxuzko etxebizitzak dira. Aldaketan behe oina eta planta bat gehitzen da.


Julen Iraolak komentatzen du datuak proiektutik atera dituztela. Ofizialtasunak horiek izanda ere, egin dezakete, baina herri mugimendu batek gauza asko ekidin ditu historikoki, eta gure alderditik deialdi hori egitea logikoa izan daiteke.

Alkateak adierazten du gauza batzuk egingarri direla eta beste batzuk ez. Baina herritarrak trakestu egiazkoa ez den informazioarekin, zeren gauza batzuk egingarri diren eta besteak ez. Berez aldatetan ateratzen dira 125m² eraikitako 82 etxebizitza eta erabilgarri 100 m² (3 logeletako etxebizitza baina ez dira etxebizitza handi handiak) gehi lur sail txiki bat.

obligaciones, derechos que va consiguiendo poco a poco si cumple los pasos. Y en este caso ha cumplido con sus obligaciones y pasos y lamentablemente no estamos decidiendo si eso se puede hacer o no. Porque, eso ya estaba decidido, y el derecho ya se ha originado. La única forma de rechazarlo podría venir con la modificación del planeamiento general, pero el Ayuntamiento de Ordizia ha sido, en su día, beneficiario de dicho planeamiento y no tiene ningún sentido que este único beneficiario muestre ahora su negativa. Pero hoy en día estamos así porque en su día se tomó una decisión y porque estas viviendas están vinculadas a todo el ámbito industrial Lortek, Goieki y Goierriko Herrien Ekintza. Si fuera otra situación, no desarrollada, y en estado verde estaríamos en otra situación. Por lo tanto, la información es que las viviendas de 295 m² no son las que se propone con este cambio, sino que son las viviendas de lujo que se van a hacer si el cambio no se hace. En la modificación se añade la planta baja y una planta.

Julen Iraola comenta que los datos se han sacado del proyecto. Aunque las oficialidades sean esas, pueden hacerlo sí, pero un movimiento popular ha evitado muchas cosas históricamente y puede ser lógico que desde nuestro partido se haga esa convocatoria.

El alcalde indica que hay cosas que son factibles y otras que no. Pero tergiversar al ciudadano con información que no es cierta, porque unas cosas son factibles y otras no. De hecho, en la modificación salen 82 viviendas construidas de 125 m² y 100 m² útiles (vivienda de 3 dormitorios, pero no grandes viviendas) más una pequeña parcela.



.....

Julen Iraolak galdetzen du grabatzen gabiltzan bideoak igorriko dira, bideoakta hauek, alegia.

Julen Iraola pregunta si se van a enviar los vídeos que estamos grabando, ¿qué son estas video actas?

Idazkariak agertzen du ez dela bideoakta. Gaur grabatzen gabiltza zinegotzi baten hizkuntza eskubidea bermatzeko, eta itzultzaile bidez esandakoak jasotzeko, baina ez da bideo akta bat, eta gainera ez da publikoa. Eta hasiera batean ez dago asmorik partekatzeko. Xedea da bermatzea euskaraz ez dakiten zinegotzien hizkuntza eskubidea, ez da gehiagorako egin.

La secretaria manifiesta que no es un video acta. Hoy estamos grabando para garantizar el derecho al idioma de una concejala, y para recoger las palabras a través del traductor, pero no es un acta de vídeo y además no es pública. Y en principio no hay intención de compartir. El objetivo es garantizar el derecho lingüístico de los concejales que no sepan euskera, no se ha hecho para más.

Alkateak esaten du lotzea geratzen da bideoakta zein enpresarekin egingo dugun. Gainera adierazi bezala, ez da publikoa Tokiko Gobernu Batzordea, eta askotan izenak eta datuak adierazten dira bilera hauetan, beraz ez dira akta publikoak. Beraz, datu babesaren ingurua ere kontuan izan behar dugu.

El alcalde dice que queda por atar con qué empresa vamos a levantar el video acta. Como se ha señalado, además, no es pública la Junta de Gobierno Local, y en muchas ocasiones se indican nombres y datos en estas reuniones, por lo que no son actas públicas. Por lo tanto, también debemos tener en cuenta el entorno de protección de datos.

Julen Iraola, galdetzen dugu zeren bere garaian Intraneta egitean partekatuko zela idatzizko akta egin aurretik.

Julen Iraola, preguntamos porque en su día se comentó que al hacer la Intranet se compartiría antes de levantar el acta escrita.

Alkatea orain osatzen ari gara, beraz jakiten dugunean ikusiko dugu gauzak lotzen diren heinean.


El alcalde indica que lo estamos formando ahora, así que cuando lo sepamos veremos a medida que se vayan atando las cosas.

Idazkariak errepikatzen du ez dela sesio publikoa, eta publikoa izatea erabakitzen bada neurriak hartu beharko direla. Bideoan agertzen dena izango da, gero ezin da bideoa moztu, kendu eta aldatu. Eta, egun, denetik hitz egiten da sesio hauetan. Beraz, hori aintzat izan behar da erabaki hori hartu aurretik.

La secretaria reitera que no se trata de una sesión pública y que si se decide que sea pública habrá que tomar medidas. Será lo que aparezca en el vídeo, luego no se puede cortar, quitar y cambiar el vídeo. Y hoy en día se habla de todo en estas sesiones. Por tanto, esto hay que tenerlo en cuenta antes de tomar esa decisión.



Aztergai gehiago ez dagoenez, *Y no habiendo más asuntos que tratar, el*



Ordiziako Udala

2025ITGB0006

Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

Sr. alcalde levanta la sesión, de la que se extiende la presente, de todo lo cual, yo la secretaria, certifico.

Sinatzaileak Firmantes	IDAZKARIA / SECRETARIA Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave
	Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara: / Este documento se ha firmado electrónicamente. Para verificar la veracidad de este documento ir a la página de Internet: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAAR10R8.15MH